


Inperialismoa, gelan ikusten ez dugun elefantea



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA

ANTTON OLARIAGA

Agian gogoratuko duzue, askatasuna eta mugaren arteko dialektika izan nuen hizpide lerro hauek etorri nintzen azkenekoan. Elkarren kontrako kontzeptuak ez izatetik urrun, txanpon beraren bi aldeak baino ez direla azpimarratzea izan nuen orduko hartan helburu, heziketaren eremuan batez ere, arazo askoren jatorrian dagoelako askatasuna eta mugagabetasunaren arteko identifikazio okerra. Bizitzaren baitako gertakari guzietan bezala, eremu mugatua behar du askatasunak loratu, definituak eta zehatzak izate hutsagatik, errealitate guzietan direlako mugatuak.

Hala ere, mugaren existentzia ezin ukatuko delako baieztaez ez du inondik ere esan nahi muga guzietan berezkozkat jotzen ditudanik, edo inguratzen gaituen errealitatearen nolokotasuna besterik gabe onartu behar dela uste dudunik. Ez nuke mugen apologista huts bezala agertu nahi, argi dudalako muga guzietan ez direla onak, eta askatasunarekin bateraezina direla horietako asko eta asko. Gakoa, mugen artean diferentzia egokia egitean datza, eta azken mota horretakoak zein diren ongi jakiteko gaitasunean.

Errotik erazi beharrekoak, gizakion funtsezko beharrak ukatzen dituzten

muga horiek dira, gure izatea eraldatzea helburu dutenak, edo garena izateari utz diezaiozun propio diseinatuak direnak. Zentzu orokorrean, modu batean ala bestean pertsonen manipulazioa bilatzen dutenak leudeke talde horren barnean; edo heziketaren esparru zehatzagoan, haurren berezko natura formatzeko helburuarekin diseinatuak diren muga instruktiboak. Mota honetako mugen ezaugarria da beti dagoela biolentziaren erabilera inplizitu bat. Zenbateraino nahi den pertsona doblegatu, edota zenbateraino erakusten duen pertsonak erresistentzia. Bi barietate horien arabera izan da minaren gradu handiagoa ala tipiagoa.

Dena den, inperialismoa da oroz gaitetik giza askatasunaren etsaierik handiena. Munduan barna lur eremu egokia aurkitzeko askatasunak dituen zailtasunen arrazoia da, eta munduko populazioaren zati handi bat libre izan ez dadin aplikatzen den biolentzia ageriko edo kamuflatuaren jatorria. Gerra, konkista eta okupazioaren bidez herri bati bere lurraldean libre –kanpoko in-terbentziorik gabe, eta bakean– izateko eskubideren urraketa datza berez, inperialismoaren delitua. Baina askatasun

nazionala ukatua den eremuan, definitziorik daudenez eragotziak herritarren eskubide indibidual guzietan ere, inperialismoa da giza eskubide funtsezko guzietan mehatxu gorena, bai eta horregatik ere, demokraziaren etsai nagusia. Herrien autodeterminazioaren errespetua da, ordea, funtsezko giza eskubideak indarrean egon ahal izatearen baldintza, eta horregatik, demokraziaren oinarria.

Gizateriaren kontrako bortizkeria handien jatorrian dagoelako, eta giza espeziearen aniztasun ekologikoa mehatxuan ezartzen duelako, askatasunaren aldeko edozein borrokalariarentzat behar luke inperialismoak jomuga izan. Euskaldunon kasuan, gainera, gure biziraupena dago jokoan, eta premiazkoa da hortaz inperialismoaren okupazioa gaitetik kendu eta gure independentzia berreskuratzea. Libreki bizi eta garatu ahal izan gaitetzen euskaldun giza gure lurraldean. Hori baino ez da autodeterminazioa.

Zoritxarrez, baina, ez ikusiarena egiten zaion gelako elefantea da oraindik Espainia eta Frantziako inperialismoa. Arazoen diagnostikoa ematen digun arren, ez entzunarena egiten diogun datu ozena. ●